OIARTZUNGO UDALA

# Ur Zerbitzua

# Baldintza Teknikoaren Agiria

Portuberriko araztegian OFSY 300 arazketa sistemaren 2. etapako arazketa kargak aldatzeko lanak burutzeko baldintza teknikoen agiria.

**1-. Kontratuaren xedea:**

Kontratu honekin Portuberriko araztegian OFSY 300 arazketa sistemaren 2. etapako arazketa kargak aldatu nahi dira. Egun dauden arazketa kargak diseinatuak dauden bizi iraupena betea dute eta ondorioz aldatzea tokatzen zaie.

**2-. Exekuzio epea:**

Lan hauek egiteko 3 hilabetetako entrega epea izango da kontratua sinatzen denetik. Eta araztegian burutu beharreko lanek ezin izango dute bi aste baino gehiago iraun. Exekuzio epea luzatu ahalko da eguraldiaren edo sarrerako uraren baldintzak ez badira egokiak lanak burutzeko eta baldintza egokiak izan artean itxaron behar bada.

**3-.Hornikuntzaren ezaugarri teknikoak**

Hornitu beharreko arazketa kargak, egun ezarrita dagoen OFSY300 sistemarentzako egokiak izan behar dute. 1. Etapan jarriak daudenekin erabat bateragarriak eta aurretiaz hau horrela dela ziurtatzen duen agiri bat aurkeztu beharko da memoria teknikoan. Agiri hau aurkeztu ezean, ez da eskaintza kontutan hartuko.

Tankeen azpiko aldean ezarrita dauden “setak” (barreatzaileak) OFSY300 sistemarentzako egokiak izan beharko dute eta hauek ere horrela direla ziurtatzen duen agiri bat aurkeztu beharko da memoria teknikoan.

**4-. Lanak burutzeko plangintza**

Lanak hasi aurretik garbi eduki behar da zein pausu eman behar diren eta nola jarri behar den arazketa planta lan hauek egiteko. Lan hauek burutzeko lehenengo, 1. etapa bakarrik jarri behar da martxan eta 2. Etapa isolatu egin

beharko da lanak behar bezala burutzeko. Hau oso garrantzitsua da. Araztegian egiten diren lanek herriko ur horniduran eragina izan dezaketelako eta akats edo ez usteko batek herriko ur hornidura arriskuan jarri bait dezake.

Ez ustekoak ahal den neurrian gutxitzeko, plangintza bat egin beharko da eta plangintza honetan araztegian egin behar diren pauso guztiak zerrendatu eta arrazoituak egon beharko dute. Ondoren lanak Udaleko Ur zerbitzuarekin adostu beharko dira. Batez ere zein egunetan egin.

Plangintza honetan lanak kronologiko zerrendatu beharko dira eta lanak nola egin, zein material erabiliko diren eta nork egingo dituen garbi geratu beharko du.

Plangintza honetan, udalak dituen baliabideak ere kontutan izango dira. Karga zaharrak ateratzerako orduan eta bertan manipulatzerako garaian.

**5-.Kargen garraio**

Arazketa kargak Oiartzungo Udaleko biltegira ekarri beharko dira lehenik eta ondoren bertatik araztegira eramango dira. Azken garraio hau nola egin pentsatua eduki beharko da eta Udaleko Zerbitzuekin koordinatuta egin beharko da.

**6-.Erabiltzen den erraminta eta materialen garbitasuna**

Lan hauek egiteko erabiliko diren erraminta eta material guztiak aurretik behar den bezala garbituak eta desinfektatuak egon beharko dute. Horretarako, lanak burutuko dituen enpresak jarriko ditu baliabideak. Udaleko Ur Zerbitzuak beharrezkoa ikusten duenean material eta erramintak berriz garbitu eta desinfektatzea eska dezake.

**7-.Martxan jartzea**

2. Etapako kargak aldatu, garbitu, purgatu eta tankeak urez beteta jarri ondoren 1. Etapako kargak osatuko dira. Ondoren 1. Etapako kargak, garbitu, purgatu eta tankeak urez beteta jarriko dira. Araztegia martxan jarri aurretik, zegoen bezala eta presio eta emariak OFSY300 sistemak eskatzen dituen baloreekin erregulatuta utziko dira.

Ziurtatzeko, Udalak, Osasun Sailarekin adostuta, ur-analitika batzuk egin ahalko ditu eta urak edangarritasun baldintzak guztiak bete beharko ditu urak.

OIARTZUNGO
UDALA

## 8-.Hornidura eta instalakuntza baldintza orokorrak

Araztegian eman beharreko pauso guztiak Ur Zerbitzuarekin adostuko dira eta bertan dagoen material edo baliabideren batek lanen ondorioz kalterik jasango balu, kontratatutako enpresak egin beharko du kargu konpontzeaz.

Lanak amaitutzat, araztegia arazorik gabe martxan eta OFSY300 sistemak bete behar dituen presio eta emari baloreak betetzen dituenean, emango dira.

Araztegia zerbitzuan eta udal teknikariak asebetetzen direnean bakarrik amaitutzat emango da kontratua. Harrera akta baten bitartez egingo da hau. Baldin eta udal teknikariak uste badute hornitutako eta burututako lanek ez dutela esleitutako betetzen gelditu egingo da prozesu guztia.

Sinaduraren egunean

**Digitalki sinatua:**
**XABIER ARRUTI LANDA**
**2021/06/30, 10:26:40**